

# Nafarkaria


• ostirala • 2001eko uztailearen 27a

Egunkaria

## Gehigarri honetan

**Bertiz** • Natur Parkearen margolan lehiaketako lanak jasotzen dituen erakusketa zabalik dago  
**Itziar Irigoien** • «Euskal kurrikulum musikala jorratzeko, gure ondareaz baliatu behar dugu»

Oporraldietan ezer gutxi egiteko ohitura izaten dugu. Akaso jan, lo eta bizi baino ez dugu egiten. Bada, ordea, oporraldietan ere lan egiten duenik ere. Izan ere, gero eta jende gehiago bere eguneroko bizimodua utzi eta hilabete batez kanpora irteten da boluntario gisara lanean aritzera. Auzolandegietara joatea modan dago gaztetxoan artean. Hemendik 105 neska-mutiko irten dira atzerrira, baina gururat etortzen direnak ere anitz dira. Orotara laü auzolandegi daude aurten Nafarroan, eta bertan mundu osoko 200 gazte ari dira, jo eta ke, lana eta oporrak uztartuz.



• MIKEL SAIZ



# Bertzelako oporraldiak



Bertiz ●

# Bertizko Natur Parkea margolan lehiaketa

Hogeita zazpi margolan hautatu dituzte, eta irailean jakinaraziko dute zein den sariduna



Bi bisitari Bertizko jauregian paratu duten margolan erakusketa ikusten. ● JOXE LACALLE

**Irailaren 16a bitarte Bertizko Natur Parkean ikusgai egonen dira izen bereko lehiaketako 27 finalisten lanak. Denetara 208 margolan aurkeztu eta 27 lan hautatu dituzte.**

**N**AFARROAN MARGOLAN bakarrari eman zaion saririk handiena erabakiko da irailaren 16an: 3 milioi jasoko ditu irabazleak, epaimahaikide-

ek saridun bat badela erabakitzen badute; izan ere, saria eman gabe gelditu daitezke. Maiatzaren 4a bitarte, 208 margolarik euren lanak bidali zituzten

Bertizko jaurreira, eta haien artean hautaturiko 27 hoberekin jaurreira ikusgai egonen dira irailaren 16a bitarte. Lehiaketa berezia da, publikoak botoa eman baitezake. Ikusle bakoitzak botoa eman behar du azken erabakia hartzeko orduan, epaimahaiaren boto bat balira bezala. Margolari gehienak (15) nafarrak badira ere, bakarra da Bertiztik hurbil bizi dena; hain zuzen ere, Gar-

biñe Larralde lesakarrak El Salvadoretik bidali zuen bere margolana. Margolari gipuzkoarren lau lan ikus daitezke, eta horiekin batera Espainiako lau eta munduko bertze herrialdeetako hiru aurkituko dituzte bisitariak Parkeko loretoan dagoen jauregian.

Uztailaren 4an Javier Markotegi Ingurumen kontseilariak erakusketa inauguratu zuen, eta geroztik ikusle ugari izan dira parkearen irudiak islatzen dituzten artelanez gozaten. Lehiaketan irabazle gertatuz gero, lana Nafarroako Gobernuaren esku geldituko da.

Parte hartzeko oinarriek zioten bezala, Espainian bizi edo espainiarra zen edonork bidali zezakeen margolana. Aukeratuak lanak, nahitaez, Natur Parkearen ezaugarri eta bereizgarri diren paisaia, giza edo luraren erabilerekin lotuta egon behar zuten. Lanen formatua librea zen, eta gehienez 80x90 zentimetroko neurria izan behar zuten. Teknikan ere ez zegoen inolako mugarik. Horrek ekarri du obra guztiak erabat desberdinak izatea, estilo eta teknika ugariekin.

Ikusleek, nahi izanez gero, hautaturiko 27 lanen liburuxka eros dezakete, 500 pezetaren truke. Epaimahaia osatuko duten zortzi kideek uda osoa dute sari mardul hori norentzat izanen den erabakitzeko.

→ Rakes Goñi

Bera ●

**Indurain ibilbide zikloturista eginen dute igandean, hamargarrenez**

MIGUEL INDURAIN ATARRABIA-ko txirrindulari handiaren izena daraman ibilbide zikloturista eginen dute igandean, hamargarren aldiz, Beratik abiatu eta Beran bertan bukatuz. Antolatzaileak, baikor dira, eta joan den urteko parte-hartzea gaitzetea espero dute, 2.000 lagunetik goiti bildu baitziren joan den urtean.

Bi ibilbide izanen dituzte aukeran txirrindulariek, bata 180 kilometrokoa, eta bertzea 105ekoa. Lehenbizikoa goizeko 08:00etan abiatuko da Berako Eztegara pasealekutik, eta ordu erdi geroago eginen dute bigarren ibilbidean parte hartuko dutenek. Beratik Doneztebera joanen dira txirrindulariak, eta handik Saldiasako errepidea hartuko dute, Orokietan barna Ostizera ateratzeko. Belate mendatea gaitzete beharko dute gero, eta Berroetan barna Zigara joanen dira, Irurita eta Elizondora jaisteko. Eguneko hirugarren gaina Otxondon izanen dute. Dantxarinetik Sarara joanen dira txirrindulariak, eta Lizaietan barna —laugarren mendatea— Etxalarrera agertuko dira, eta Beran bukatu. Bi ibilbidea hautatzen dutenek, aldiz, leunagoa izanen dute bidea. Beratik Oronoz-Mugairira joanen dira, eta Belateko lehenbiziko maldetatik Berroetara. Hortik aitzin, A ibilbidekoen bide bera egin beharko dute helmugaraino.

Izen ematea larunbatean nahiz froga hasi baino ordu erdi aitzin eman ahal da.

→ Jon Abril

zubian barna

BINGEN AMADOZ



**G**auetz, intentzio txarrez eta alde aurretik prestatuta. Horrela aritzen dira epaileak zigortzen dituen delinkuenterik txarrenekoak. Berdin jokatzeko dute gure agintari batzuek. Agindutako neurria askoren gustukoa ez denean, hau da, biztanleriak neurriari bere ezetza argi azaldu dionean, gaueko ordu txikiak aukeratzen dira txikizioarekin hasteko. Bartzina anderea horrela ari da.

Gaztelu plazan motozerrak goizeko lauretan sarrarazi zituen. Hiriko biztanleen erdiak oporretan, beste erdiak lotan. Esnatu orduko, hondamena erabatekoa zen. Asteleheneko egunsentian zuhaitz gehienak lurtean zeuden. Horren erantzun hiritar handia izandako aparkalekuaren proiektua martxan zegoen.

Iruindarren ahotan denetarik entzun genuen goiz hartan. Bazegoen «aurrerapenaren» alde ari zena, eta, beraz, aparkalekuaren alde mintzatzen zena, hiri hau askotarikoa baita, baina gehienek ahotan ez zen hori zabaldu. Tristura eta samina oro har, haserrea ere bai, eta, ondorioz, hitz gogorak aditu ziren eroritako arbola adarren artean.

Agintari iruindarrek gorrarena egin dute. 25.000 sinadura bildu ziren erreferenduma eskatzeko. Ahots asko entzun ziren

## Bartzinkeria

Gaztelu plazaren alde, aparkalekuaren aurka. Alferrik, ordea. Udalean nagusi direnek ez diote herriari hitza eman nahi izan. Galtzailatzat ematen zuten beren burua, Gaztelu plazaren aldeko oihartzunak ez baitziren txikiak. Lau urtean behin biztanleriak boto eman eta gutun zuria eskutan hartuta edozein gauza egiteko aukeratu dituztela uste dute. Oker daude erabat. Kaleko protestak ez dira harako edo honako talde politikorekin atxikiak diren jendartearen entzuten.

Hiritarrak dira bartzinkerien aurka mintzatzen direnak, Gaztelu plaza orain arteko horretan segitzea nahi zutenak, Iruñeko erreferentziarik hunkigarriena ukitu nahiko ez luketena eta, azken finean, pentsakera desberdineko plazaren maitaleak.

Astelehen goizean hantxe zeuden adinekoak zutik gertatzen ziren zuhaitzen itzalpean temati, aita-amak, haurrak botatuko landareen artean paseatu nahian, zakur-jabeak eta zakurrak ere nora ezean, goizero lanera presaka doazenak zur eta lur bertan inguruari begira. Sinestezina egiten zitzaiz-

gun denoi gertatutakoa. Amets gaiztoa. Galderak entzuten ziren airean: Hau al da demokrazia? Nork hartuko du mesede honetatik? Baita egiaztapen inperatiboak ere: Doala Burgos! Susmoak ozenki aldarrikatzen ziren: alkatearen interes ekonomiko familiarak agian... hotelen batek aparkalekuak behar omen... Aurrera begira hartutako erabakiak ere eman ziren ezagutzera, horren harrokeria handiz «Iruindar betikoa naiz» aldarrikatzen dutenen artean: Boto eman nion haren partiduari baina ez du hurrengoa hartuko... Eta zalantza latza askok barreiatutakoa: Ez al du ezertxo ere balio gure iritziak?

Alkatearen bizkartzaina hantxe zegoen, esaten zirenak entzuten. Fideitasunez kontatu baditu, badakite beraz lehen agintariak ez naizela gezurretan ari.

Emakume atzerritar batek eroritako zuhaitzen artean ibili zen habirik gabe gertatutako txorikumeak jasotzen. Horietako batek haren eskuan hartu zuen babesa. Alkateak eta haren erabakia sostengatu duten hautetsiek etxerik gabe utzi zuten gaixoa. Iruñea maitatzen dugun gizakiok ere erasotuak sentitu gara. Hiriko bihotzak zauriturik ematen zuten. Ez diogu horri batere alde onik atera. Hiritar xume bati aditutakoa da: Bartzina anderea!! Hemen ez ditugu gauzak horrela egitea nahi.



# Lizarra • «Sexua gozamenez»

Pop-rock emanaldi batekin bukatuko da aste osoan egin den kanpaina

**Gazteei sexualitatearen ikuspegi baikorra zabalteko xedea duen Gozamenez kanpainaren barnean, ekitaldi anitz egiten ari dira egunotan. Tartean erakusketak, ikastaroak eta bihar egingen den pop-rock emanaldia izanen dira gurean.**

**E**STELLERRIKO POP-ROCK emanaldiak emanen dio amaiera, bihar, Ega ibaiak zeharkatzen duen hirian aste osoan izan den Gozamenez kanpainari. Gaueko 23:00etatik aitzina, Los Llanos pasealekuko txosnan bost talde arituko dira tranpaldoganean, eskualdean egun egiten den musika ezagutarazteko. Hain zuzen ere, Lizarrako Hi Aituzak, Oteitzako Aizkora 47, Muniaingo Nahikoa da, Lodosako Arriskua eta Andosillako Peta Z musika talde gazteek eskainiko dute kontzertua. Haatik, musika emanaldiez gain, ikastaro anitz izan dira aste osoan Lizarran, eta gaur ere tailer berezia izanen da; izan ere, dantza afrikarrak dantzatzen eta jembe musika tresna jotzen ikasteko parada izanen du iluntzeko 20:00etatik 22:00ak bitartera Udaleko Gaztelekura biltzen den orok. Aste osoan hena eta makillaje tailerrak ere egin dira.

## Argazkiak, margolanak eta komikiak

Arestian aipatu kontzertu eta ikastaroez gain, erakusketa ere paratu dute Lizarrako Udaleko Gaztelekuan. Bertan, hilabete osoan sexualitatea modu ani-

tzetan adierazi ahal dela adierikatu duen erakustaldia zabaldu dute. Gazteek egin dituzten argazkiak, marrazkiak eta komikiak ikus daitezke. Tartean, hiriko alaba Andrea Mugerza gaztetxoaren Ez utzi zu engainatzen izeneko komikia irakur daiteke.

Gozamenez kanpaina 2000. urtean jarri zen martxan, gazteen artean sexualitatea bizitzeko modu ugarien ganean ikuspegi positiboa eta aberasgarria zabaltearen. «Kanpainaren bidez, gazteen sexualitatea begirune osoz atera nahi dugu agerira, hura zerbait on, aldar kor eta aberasgarria delakoan», azaldu digu Chus Labargak, Hiesaren Aurkako Batzordeko kideak. Hiesaren Aurkako Batzordea, EHGAM, Cofes-Andraize, Cofes-Iturrama, Gazte Kontseilua, Sare, Giza Zerbitzuen lankideak, Emakumeendako Sostengu Gune Hezitzaileak eta gazte taldeak aritu dira ekimena prestatzen. Lizarrako ekitaldiak antolatzen herriko Herriz Herri eta Bambu taldeak ere aritu dira.

Ega ibaiak zeharkatzen duen hirian izan eta gero, Gozamenez kanpaina Tafalla, Leitza,



Andosillako Peta Z musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar, Los Llanos pasealekuan • EGUNKARIA

Sakana eta Aezkoan izanen da datozen hilabeteotan. 2001. urterako prestatu diren ekitaldien amaiera Iruñeko Alde Zaharrean egingen da, jai handi batekin. Halaber, kanpainaren

nondik norakoa Interneten ere jarraitu ahal izanen da; horretarako, [www.gozamenez.com](http://www.gozamenez.com) web orria zabaldu berri dute.

→ Kristina Berasain

## herri aldizkariak

Haritz Urra

## Iparraldeko berriak ere 'www.egunkaria.com'-en

**Herria** Iparraldeko kazetak eta **Egunkariak** lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Baionan joan den asteartean. **Egunkariak** berebiziko pauso bat eman du Euskal Herrietako herriei buruzko informazioa eskaintzeko. Hemendik aitzina, Ipar Euskal Herriko herrietako informazioa idoro ahal izango du irakurleak Interneten, **Egunkariak Herria** kazetarekin sinatu duen akordioa dela medio. Duela gutxi Bizkaiko herrietako herriei lekutxo bat egin zien **Egunkariak** Interneten, Nafarroarekin gauza bera eginga zuen lehendik ([www.egunkaria.com/nafarroa](http://www.egunkaria.com/nafarroa)),

eta orain Iparraldeko herriei iritsi zaie txanda.

[www.egunkaria.com](http://www.egunkaria.com) orrialdearen barnean Ipar Euskal Herriko probintzia bakoitzaren izena jarri gero (*/lapurdi*, */zuberoa* edo */nafarroa-behera*), internautak Iparraldeko herrietako informazioaz gozatu ahal du. Berriak baxenafarreraz eta lapurteraz idatzirik egongo dira, baita zubereraz ere. Horrek balio linguistiko handia emango dio **Egunkariaren** webguneari.

Baikorregiak izan gabe, **Egunkariaren** erabakiak garrantzia izanen du Iparraldeko euskalkietako esamoldeak eta egiturak za-

baltzeko eta Iparraldeko gune txikiak informazioa Euskal Herri osora helarazteko.

Askotan zaila izan da guretzat, Hegoaldeko euskaldunontzat, Iparraldeko jendearekin ulertzea, ez ikuspuntu semantikotik baizik eta kulturaletik, hagitaz zaila baita komunikatzea inferentziak badaude eta espresabideak era anitzekoak badira. Baina horretan datza hizkuntzen aberastasuna, hala euskaratena nola besteena, eta epe luzera elkarren arteko desberdintasunak onartzen dituen batasunak etorkizunean ia halabeharrezkoa dirudien eguraldi txarraz babes gaitzake guztiok.



urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu


## Loa

Hurrengo esaldi hau ikastolan ikasi nituen gauzen artean ikasgairik zehatzena, benetakoena da: «Nire katua Pitxitxi lo eta lo dago beti». Hala da! Ez dago eztabaidatzerik! Gainontzeko gauzak duda-muda sortzekoak izaten dira, baina esalditxo hori egunero-egunero nire katu Xaxarekin egiaztatzen da, egun oso-oso lotan ematen baitu. Eta hemen dator misterioa. Zeren zientzialariek loa zertarako den, zehazki, ez dakite. Zientzialariek ez dakite Xaxa egun osoan zertan aritzen den. Loa zer den azaltzeko, hori bai, hipotesiak eta teoriak eraikitzen saiatzen dira, eta horretarako esku artean dituzten datuak baliatzen dituzte, eta datu horiek lotan gauden bitartean burmuinaren aktibitatea izugarri handia dela baieztatzen dute. Batzuek teoria bitxi bat darabilte. Esaten dute lotan gaudela.gure burmuina egunean jaso duen informazioa sailkatzeko ibiltzen dela: «Hau garrantzitsua da, hau ez. Hau «Bikotearen» karpeta jarriko dugu eta beste hau «Lanaren» karpeta». Eta abar. Burmuinak nonbait orduantxe ezabatzen ditu ezabatzekoak: «Datu honek ez du bestelako garrantzirik. Urratu».

Gauzaren izugarria ongi irudikatze, pentsatu behar duzue zenbat eta zenbat datu, oroitzapen ditugun buru barruan eta zenbat eta zenbat gauzari lotuak.

Pentsatu behar duzue, loaren lan nekosoa ongi atzemateko, zuek umeak zinetela ikusi zenuten behi hura gauero-gauero «Ume Garaiko Oroitzapenak» karpetatik atera eta berriz ere sartu egin duela loak, bere garrantziaz oharturik, gauero, urteetan, gauero. Eta horrela gainerako guztiak. Orain, nire galdera da: Zeintzuk dira Xaxaren lau datu horiek? Zeintzuk, loaldi bakoitzaren ezabaketak saihesten dituztenak? Kristoren garrantzia izan beharko dute! Pentsatu behar duzue egun osoa irauten duten loaldietatik bizirik, osorik, atera direla! Egunean behin ez, baizik eta modu etengabean ezabatzea saihestea lortzen dutela. Zeintzuk izanen dira, beraz? Funtsuzko lau benetako egia, seguru nago. Begira, oraintxe iratzartzen ari da eta hausnarka egiten du oraindik ere erdi-lo. Euli bat ikusi du leihoan, eta badoa hura harra-patzera. Bere barruan lau egia borobil horiek segitzen dute, azken ezabaketa ere saihesturik. ●





● MIKEL SAIZ

Zoe Redgrove



● MIKEL SAIZ

■ Zerk bultzatu zaitu auzolandegira etortzera?

Jendea ezagutzeko aukera ezin hobea da auzolandegietakoa, eta, gainera, gaztelaniaz aritzeko parada ematen dit. Halaber, horrelakoetan izaten den bizimodua oso gustukoa dut. Giro ona izaten da gure artean eta.

■ Aurretik egona zara bertzelako auzolandegietan?

Bai, duela bi urte Kordoban (Espainia) izan nintzen. Han ere arkeologia lanak egin genituen, iberiari aztertzea baita. Aurten ere bertzelako oporrak pasatzeko gogoia nuen, eta honat etortzea erabaki nuen.

■ Zer iruditzen zaizu Nafarroa?

Oso berdea da. Hemen gaztelaniaz hitz egiteko modua ulertzen dut; hegoaldean, aldiz, ez nuen piperrik ere ulertzen, oso azkar aritzen baitziren. Halaber, hemen hotza egiten du batzuetan, baina Espainiako hegoaldean hori pentsaezina da garai honetan.

Nongoa:  
Kornualles  
(Ingalaterra)  
Adina: 24 urte  
Lanbidea:  
informatikaria

Cathaysa Quevedo



● MIKEL SAIZ

■ Zerk bultzatu zaitu auzolandegira etortzera?

Oporretan joan nahi nuen ekaineko azterketak egin eta gero, baina nire lagunek ezin zuten. Jendarekin egon nahi nuen, eta hau aukera polita zela pentsatu nuen: jendea ezagutu, lagun berriak egin eta leku berri bat ezagutzeko.

■ Aurretik egona zara bertzelako auzolandegietan?

Ez. Hau aurreneko aldia da niretako. Uhartetatik irten eta iparraldera etortzeko gogo izugarria nuen, eta auzolandegiak, diru gutxiren truke, hori egiteko aukera eman dit. Entzun izan nuen aurretik auzolandegiez hitz egiten, baina berri-berria da hau niretako.

■ Zer iruditzen zaizu Nafarroa?

Ederra da benetan, herri txikiak ere hagitik politak dira. Halaber, egun batzuetan hotza egin izana asko eskertzen dut, eta eguraldi aldaketek asko harritzen naute.

Nongoa:  
Kanariar uharteak  
(Espainia)  
Adina: 21 urte  
Lanbidea:  
zuzenbide ikaslea

# Laneta oporrrak uztartuz

Mosoko 200 gazte ari dira lanean Nafarroan paratu dituzten lau auzolandegietan

Iparraldean, hegoaldean eta ekialdean. Nafarroako lau aldeetan paratu dituzte aurten udan bertako lau auzolandegiak. Urdazubi, Getadar, Lizarra eta Urdazubi ingurumena eta ondare artistikoa lehengoratzeko xede duten lanetan ari dira 200 gaztetxo. Gehienak ikasleak dira, eta, auzolandegietan izan gero, diru gutxiren truke oporretan joateko parada izaten dute. Hamabortz egunean, lana eta astialdia uztartuz, etxetik irteteko aukera bakarra izaten da askorentzat.

AITZURRA, PIKATXOIA, ENDA... lagun, uztailaren auzolandegietan mundu osoko 200 neska-mutikok ari dira Nafarroako auzolandegietan garbitzeko eta ondare artistikoa lehengoratzeko Nafarroako Gazteria eta Juntak kudeatzen dituen auzolandegietan ari dira, hain zuzen ere. 15 egun bitarteko neska-mutikok auzolandegietan izanik, askorentzat oporretan aukera bakarra da auzolandegietan izan da. 10.000 pezetaren (100.000 libera), gurasoen etxea eta eguneko modua utzi, eta bertze herrialdeetako parada izaten dute.

Aurreneko Mundu Gerraren ondoren, zenbait gazte gizarte berriaren eginiko lanetan dute jatorria. Gogokiak, eta egun izugarriko indar dute mundu osoan, herrialdeetako elkarlanari esker. Nafarroan, hori urte ekin zitzaion auzolandegietan, eta aurten 6 milioi euro aurrekontua du ekimenak (240 milioi).

Bertakoak atzerriar kanpokoak honak

Aurten Nafarroako 105 gazte atzerriar eginen diren auzolandegietan parte hartzea: Alemaniara, Dania, Estatu Batuetara, Eslovakiara, Frantziara, Ingalaterrara, Holandara, Italiara, Mexikora, Poloniara, Txetara, Turkiara joateko aukera izan dute neska-mutikok.

Nafarroan, berriz, orotara parte bildu dira aurten udarako prestatzen lau auzolandegietan. Hilabete biko txandatan aritu dira. Aurreneko txandaren 100 gazte hilaren 15 arte gure artean, eta bigarren txandaren 31n amaituko dituzte lanak. Urdazubi, Getadar, Lizarra eta Urbañan ari dira auzolandegiak. Bakoitzek parte hartzen dira, eta denetan hamabortz eguneko bi txanda egin dira.

Urdazubini, Donejakue bidearen bat lehengoratzeko ari dira gazteak. Baztan bailara zeharkatzen dute, eta hain zuzen ere. 2004. urtean ospatu zuten Donejakue urtean espero dute. «Erromesek frantses bidea deitzen dute batik bat Santiagora», eta gure asmoa ordezko bideak izatea da», azaldu du Jose Ignacio Aizpuru Saileko buruak. Urteetan zuzen

otzez, garoz eta zuhamuxkaz estalita egondako erromatarren garaiko bidaria garbitzen ari dira, beraz, auzolandegi honetako neska-mutikok. «Harbidea garbitzen ari gara: belarrak kendu, sasiak erotik atera eta adarrak moztu. Eskokatzear gero, bidea seinatzeko ere ari gara, bidearen gezi horiarekin jakina», azaldu dute gazteek.

Izarbeibar bailaran kokatua dagoen Getadar herrixkan ere bertze talde bat ari da lanean. Hor, urteetan hutsik egon diren herrietako baserri eta jauregiak konpontzen ari dira, ondare historikoa gal ez dadin. Nafarroako Foru Ondarearen barruko eraikinak ari dira konpontzen gazteak, eta oraindik ere lan ugari badago egiteko, baina pixkanaka-pixkanaka lan garrantzitsua egiten ari dira. «Auzolandegiak, bertze gauza interesgarrien artean, gure lurraldeko ondare lehengoratzeko oso baliagarriak dira. Gazte hauek egiten ari diren lanak bertakoek hemen dutenaz jabetzeko eta arduratzeko balio izaten du maiz», adierazi du Ausinek.

Urdazubi eta Getadarren aurreneko aldiz egiten ari dira auzolandegiak; Lizarrakoak eta Urbañakoak, aldiz, urte gehiago daramatzate martxan. Lizarran, Zalatanbor gaztelua izan zenaren harresiak zaharberitzen ari dira. Mikel Ramos arkeologo eta Lizarrako auzolandegiko arduradunaren hitzetan, Lizarrakoa Nafarroako auzolandegi zaharrena da. «1985. urtean hasi ginen Hilobi Santuko elizan, eta, bertako lanak amaituta, honat etorri ginen joan den urtean. Hiriko gaztelu zaharren arrasto arkeologikoen inguruko informazioa jaso nahi dugu: neurriak, hedadura, garaiera... gero zabalago izanen

● Eguzki-galdatan edo azken egunetako euripean, gazteek lanean dihardute goizean. Arratsaldean, berriz, astialdiaz gozatzeko eta ingurua ezagutzeko parada izaten dute

den ondarearen gaineko proiektua jorratuko dugu hemen bildutako datuekin».

Urbañako magalean, Eulate herrixkako aterpetan ere hogeita bost gazte ari dira auzolandegietan lanean. Haien eginbeharra mendikateko kobazulo eta amildegietako akuiferoak garbitzea da. Urbasa kare haitzez osatuta dago, eta lur azpian ur ugari dago. Urak kanpora irteteko dituen bideak zikinak egoten dira, eta zaborrak uraren ibilbidea trabatzen du. Beraz, paraje eder, fresko eta berde horretan bertze 25 gazte dihardute, lahardi artean, ingurunea txuntzen.

Eguzkipean edo euripean

Eguzki-galdatan edo azken egunetako euripean, gazteek lanean dihardute goizean. Bederatzietan hasten dira lanean, eta, hamaiketako hartzeko tartea egin ondoren, eguerdiko ordu bata bitartera tinko eusten diote lanari. Arratsaldean, berriz, egiten ari diren jarduerarekin zerkusua duten ekin-tzak egiten dituzte. Hala ere, astialdirako tartea ere izan dute, eta arratsaldean ibaian barrena piraguan ibiltzeko edo inguruko mendietan eskalada egiteko aukera izan dute, bertzeak bertze. «Ingurua ezagutzeko aukera izaten dugu, eta, gainera, oso giro ona sortzen da gure artean. Benetako lagunak egiten ditugu hemen», azaldu digu Alberto Mon 22 urteko gazteak. Horixe da, hain zuzen, auzolandegietan parte hartzen duten gazteek behin eta berriro goraiatzen dutena; lagunak egitea, alegia. «Hau ez da lana, oporrak dira», adierazi dute, eta guztiak berriro ere itzultzeko prest daude. Bertzelako oporrak dira!

→ Kristina Berasain



● MIKEL SAIZ





## Entzierroa

**Lasterketa.** Aurretik izan zen harrapaketak, zauriturik. Haatik, Txapitela parean lasterketak garbiak izan ziren, politak, kolperik gabeak. Lasterrean ari zirenek eskarmentu handikoak ziruditen: aski ongi zekiten distantziak markatzen, behar zenean erritmoa azkartzen, edo mantsotzen. Lasterkarion gibelesko saldo ilunak lagundu zuen. Trostan aritu zen, imintzio gaiztoegirik egin gabe. Ez naiz iragan sanferminez ari. Astelehenaz ari naiz, gaueko bederatzia aldera Gazteluko plazan, iruindarron egongela desauziatuan gertatutakoaz. **Jose Carlos Iribas** ganadutegiko zortzi borradun, zortzi, iruinseme —eta alaba— tropel baten atzetik korrika.



Sanferminetako entzierroa Iruñeko karriketan barrena.



Aste honetan Gazteluko plazako lanak direla-eta izaniko istiluak.

**Beldurra.** Monte Carloko mus partida behingoagatik bazterrean utzita, Gerardok —ikurrina baino baskoagoa den mus bikotekidea— eta biok Okapi tabernako terrazan eserita ikusi genuen hori guztiori: zaharregiak gara korrika aritzeko, edo, ur mineralaren aspaldiko iragarkiko protagonistaren pellokeriaren arabera —**Norma Duval**, agian? kuba-libreak utzi beharko ditut, baldin eta memoriari eutsi nahi badiot—, potoloegiak, kiloez pisatzen dutelako, eta ez urteek. Pellokeria baina egia biribila: kilo batek mila gramoko pisua du, eta, gainera, kilo hori gantza bada, eta leku estrategikoan paratzen bada, demagun gerri bueltan, kiloa tona bateko zama izaten ahal da autoestimuan. Astelehe-

nean komuneko pisuak lehendabizikoz 80 kiloko muga gainditu dudala, 81 kiloko pisua dudala aurpegiatu zidan, **Alfredo Jaime** alkate ohiaren ohi-turei jarraiki —betiere zenbait aldaketarekin: nik libururik eramaten dut—, abuztuaren Zarautzera oporretan joateko naizela.

Nire mugarik gabeko hedapenak eragiten dituen **Ane Igartiburu**-keriak alde batera utzita, azaltzen ari nintzen Gerardo eta biok zaharregiak, potoloegiak garela korrika aritzeko. Eta, gainera, nik, kilo eta urte gutxiago banitu, ez nuke korrikarik egiten polizien aitzinean. Gauza gutxi ikasi dut mundu honetan daramatzadan 42 urteetan, baina ezagupen urri horien artean dago uniformatuen aurrean protestak aritzeak, haien kolpeak pairatzeak, ez duela

deustarako balio. **Peio Argiñarenak** Euskalerrira irratian erabili metaforaren arabera, **Yolanda Barcinak** anesteriarik gabe birrikak ebaki dizkio foru hiburuari. Horrek min ematen du, min ematen dit, baina Action-Woman erregionalistaren kontra egiteko Iribasen morroskoen aurrean korrika aritzea bezain eraginkorra da Okapiko terrazan gina edatea.

**Harrapaketa.** Okapin gina edan genuen, eta ez ohiko kuba-librea, Gerardok azaldu zidalako ginak askoz gutxiago gizentzen duela ronaz eta cocacola egin anabasa hiperkalorikoak baino. Esku artean hirugarren basokada genuelarik, Txapitela pareko lasterketa politei so ari ginela, hain zuzen ere hori-

xe, polizien aitzinean korrika aritzea guztiz alferrikakoa dela azaltzen hasi nintzaion. Beste hainbatetan bezala, Gerardo ezetz hasi zitzaidan, eta ni baietz tematu nintzen. Eta etengabe aritu ginen baiezka eta ezezka, gin hurrupada garratza eztaurriratzeko etengabean egin genuen arte. Une hartan Iribas ganadutegiko zortzi borradun, zortzi, Txapitelarik bueltan, gure terrazaren paretik igarotzen ari ziren. Gerardok eskuin eskua beheatu zuen edalontzia mahai gainean uzteko, eta ezker ukabila altxatu uniformedunei oihukatzen: «*Hijosdeputa!*». Kolpe sorta mingarria hartu aurretik entzierroan egiten ohi diren aholku bi etorri zitzaizkidan gogora: utzi dobladoreei lan egiten eta ez deitu zezenak.



## panpilonia zirkus

### Giri hiri

Jean Jacques. Montpellier. 37 urte. Atzo abiatu zen Orreagarik eta gaur iritsi da Alde Zaharreko aterpera. Bakarrik ari da bidea egiten. Ez daki Galiziaraino heltzeko indarririk izanen ote duen.

Pilar, 38. Josetxo, 36. Eider, 7. Iturrama. Aste honetan estreinatuta dute Zarauzko kanpinean erositako bungalow berria. Oporretan baino lanean ari dira gehiago azken moldaketak egiten.

Sandro, 27. Silvia, 25. Turin. Bizikletaren gainean Italiako iparralde eta Frantziako hegoalde zeharkatu ondoren, Tuteran kalean hartu dute ostatu. Beren nahiaren kontra, ez dira iritsi jaietarako. Lastima.

Antonio, 69. Josefina, 62. Bigarren Zabalgunea. Lehen, seme-alabekin batera,

eta haiek ezkondu zirenetik bakarrik joaten dira urtero Saloura. Beti apartamentu bera alokatzen dute.

Khleifi, 46. Hebron. Palestinako zinemari buruz hitzaldia ematera etorria Nafarroako Jaialdiara. Askapena taldeko lagunekin dabil harat-honatan egunotan, eta Intifada-ren inguruko erakusketak paratuko du Zabalguneko egoitzan abuztuaren.

Xabier, 30. Arrosadia. Duela gutxi amaitu da Rosarekin azken zazpi urteotan zeukan harremana. Atzerrira bakarrik joatea erabaki du. Bide batez bere barnera egin nahi du bidaia. Pragan egon ondoren, Budapestera joan da aurki.

Hassemi, 26. Casablanca. Duela urte bi iritsi zen Iruñera. Afrikara bueltatzeko di-



Oraindik ere atzerritar zenbait gelditzen da Iruñean.

rurik ez du bildu aurten ere. Eraikuntzan irabazten duen soldataren zati handi bat sendeei bidaltzen die, eta, gainera, etxebizitzaren alokairua ordaindu beharra dauka.

Mikel, 31. Nora, 31. Donibane. Uztailaren 6an ezkondu ziren, San Lorentzoko elizan. Sanferminetan zenbait egunez egon ondoren, Greziara abiatu ziren, El Toro jatetxean azalduko gonbidatuek utzitako sosa zahutera.

Zurich Tours. Autobusean etortitako 50 erretiratu suitzarrak, Katedrala ezagu-

tzeko asmoz, Curia kaletik gora doaz. Atzo Donostian izan ziren, eta bihar Zaragozara joatekoak dira.

Rosario, 57. Txantrea. Irailean hiru urte beteko dira alargun gelditu zirenetik. Orduetik, Irurritako jaiotetxera jotzen du aukera duen aldioro. Base-rikorri lanetan eta gero eta ahulago dagoen aita laguntzen saiatzen da.

Ezin da geldirik egon. Ez da erraza Tomas zenaren irudia burutik kentzea.

Petra, 34. Wolfsburg. Gaztelania ikastera etorri da Alemaniatik. Volkswagen enpresako nagusiek Landabengo lantegira bidali nahi dute, administrazioaren ardura nagusia bere esku har dezan 2002. urtetik aurrera. Bat-batean, gure artean beste hizkuntza bat ere badela ohartu da.

Josemi eta Felix, 44. Kintoak. Laugarren urtez, Kubara joatea erabaki dute. Karibeko eguzkiak, melodiak eta mojitoak baino gehiago beste zerbaitek erakarrira.



# Itziar Irigoien

MUSIKA IRAKASLEA

## soslaia

Itziar Irigoien Perurena Doneztebekoa da, eta 31 urte ditu. Euskal filologiako ikasketak egin bazituen ere, musikazale amorratua da, eta irakasletza musikala ere ikasi zuen. Txistulari trebea da, eta musika irakasle izan da Altsasu, Olazagutia, Doneztebe eta Elizondon.

Duela hiru urte oposizioak gainditu zituen, eta geroztik musika irakaslea da Lakuntza eta Huarte-Arakilgo eskolan. Hiru eta hamabi urte bitarteko haurrak ditu ikasle.

Euskal Herri osoko musika irakasleen artean banatzen den Musikagintza aldizkari zuzendaria da. Bi hilabete behin argitaratzen da aldizkaria, ezagutzak trukatzeko xedez.



# «Kurrikulumak jorratzeko, gure ondareaz baliatu behar dugu»

**E**USKAL HERRIKO ONDARE MUSIKAL zabala ezagutzeko, gozatzeko eta eguneroko bizitzan erabiltzeko proposamena egin du Itziar Irigoienek UEUko ikastaroan. Aurtengoa amaitzear zegoela, ikastaroan egindakoak eta musikaren irakaskuntzaz aritu gara harekin.

### ■ Nolatan izen bitxi hori, Nafarroatik musikari kiriketan, ikastaro batentzat?

Hasteko, hitz polita da kiriketan eta Nafarroan anitz erabiltzen duguna. Eskolan ditugun musika eduki guztiak, gaitegi osoa, astebetean jorratzea erabaki genuen, eta hori egin ahal izateko kiriketan ibili gara. Ez genuen monografiko bat egin nahi, esparru anitz ukitu baizik: kantua, dantza, ahotsa, musika tresnak, ohiturak, tradizioa... alor horiekin guztiekin kiriketan ibili gara, betiere euskal kurrikulum musikala sustatzeko asmoz.

### ■ Euskal kurrikulum musikala izan duzue ardatz, hain zuzen ere; zer da zehazki?

Kurrikulumak irakatsi beharrekoa da, eta musika arloan ez dago batere finkatuta. Horren ondorioz, irakaskuntzan, musika irakasle bakoitzak nahi duena egiten du, nolabait. Gainera, gaitegiak prestatzeko orduan kanpoko erreferentziak izaten dira aintzakotzat, eta, gure ustez, kurrikulum musikala euskaraz sus-

**Gaur amaitu dira Udako Euskal Unibertsitateak Iruñean egin dituen 25. ikastaldiak. Bertan, antropologia, ekonomia, filosofia, hizkuntzalaritza eta soziologiak gain, musikarako tartea ere izan da. Nafarroatik musikari kiriketan izan da aurtengo musika ikastaroaren izen bitxia, eta Itziar Irigoien izan da bertako irakaslea.**

tatzen hasteko unea iritsi da. Sekulako ondare musikala dugu Euskal Herrian, bai tradizio aldetik eta baita gaur egun egiten denaren aldetik ere, eta horretaz baliatu behar dugu.

### ■ Orain arte kanpoko hartu eta euskarara moldatu egin dela erran nahi zudu?

Bai, hala da. Irakasle heziketa musikala guztia gaztelaniaz izan da, eta guk gure lana euskaraz egin behar dugu. Ondorioz, irakasle bakoitzak terminologia bat erabiltzen dugu, eta horri buelta emateko hizkuntza tekniko bat finkatu beharra dago. Arazoa zein da? Hego eta Ipar Euskal Herriko jatorriak ezberdinak direla. Guk pentagrama erraten diogunari haiek portée deitzen diote.

### ■ Zer pauso emanen dituzue egoera aldatzeko?

Hizkuntza guztiak hartu eta elkarrekin dituzten erroak aztertzen ari gara. Hagitz zaila da, egiaren errateko; izan ere, orain arte ez dago deus. Ideia on guz-

«Gizakia esparru guztietan garatu ahal izateko aukera ematen du musikak»

tiak hartu eta gure beharretara egokitzen saiatu behar dugu.

### ■ Hala ere, herrialde bakoitzean musika ezberdina egin ohi da?

Egia da tresna bakoitzak tokian-tokiko nabardurak hartzen dituela; hala ere, horretan behintzat ez gara ezberdinak; musikak nolabait elkartu egiten gaitu gizakiak. Euskal Herrian dugun txistua bertze herrialdeetan txirula izan zen. Arazoa izaten da txirula horrek gure txistua ordezkatzeko duenean, eskoletan adibidez.

### ■ Elkarlanean aritzeko aldizkari bat ere sortu duzue, ezta?

Bai. Gure lanean zein bakarrik

sentitzen ginen ikusirik, topaketa bat egin genuen duela bi urte. Bertan, ehun bat musika irakasle bildu ginen, eta komunikazio bide baten beharra ikusi genuen. Musikagintza aldizkaria sortu genuen orduan. Bi hilabete behin kaleratzen dugu, eta irakasleok elkarren berri izateko oso baliagarria suertatzen zaigu. Bertan, proposamenak egin eta jasotzen ditugu, eta sortzen den materialaren berri ere ematen dugu.

### ■ Musikak eskaintzen dituen aukerak ere anitz direlako mezua helarazi nahi izan duzue ikastaroan?

Bai. Pertsonok, fisikoak eta adimenaz gain, baditugu ikusten ez diren bertze esparruak: afektibitatea, identitatea, emozioak... Musikak horiek guztiak adierazteko eta garatzeko aukera ematen du. Edukien arloan -partiturak, tresnak, kantuak...- musika oso ezaguna da; haatik, arlo afektiboa eta soziala lantzeko musikak eskaintzen dituen ba-

liabide ugariak ez dira hain ezagunak. Ahotsaren bidez norberaren egoera afektiboa nola islatzen den ikustea, esaterako, oso aberasgarria da.

### ■ Eta nola landu ahal dira arlo horiek musikarekin?

Pertsona guztiak beren osoan garatzeko musikak eskaintzen dituen bideak hausnartzen eta urratzen ari gara. Ariketak egiten ditugu. Hurrekin ez, baina nagusiekin kostatzen da. Handitzen garen heinean, muga gehiago jartzen dizkiogu geure buruari. Nagusiok arauak behar ditugu. Umeekin zaila da arauen barruan sarraraztea, eta nagusiekin kontrakoa gertatzen da: ezin atera daitezke arauetatik. Horretarako bitartekoak erabili behar izaten ditugu barruan dagoena kanpora ateratzeko.

### ■ Eskola eta ikastoletan gehiago landu beharreko ikasgaia al da musika?

Jakina. Askotan ez zaio behar bezalako garrantzirik ematen, baina pentsazazu gela batean 20 haur ari bagara kantatzen zenbat gauza egiten ari garen: denak batera gauza bera egiten ari gara, elkarri entzuten ari gara, errespetatzen ari gara eta, gainera, denok, bakoitzak bere neurrian, ondo egiten ari gara.

→ Kristina Berasain





## Nafar Kronika

Aitor Arozena

### Gaztelu enparantza hankaz goiti

G oizaldeko bortzetan hasi eta ordubetez Iruñeko Gaztelu enparantzako platanondo eta gainerako ondo guziak errotik moztu dituzte. Nonbait, bere hiritar gehienek botoarekin gobernatzeko duen Barcina (ez naiz bere deiturarekin egiten diren txistek egiten hasiko) ez du botoemaile horien oniritzia espero, ordu tiki horietan motozerra eta eskabadoraz lanari ekiteko. Izan ere, ez du Itozko urtegiak edo gisako lan handiek eraginen duten kalterik sortuko Gaztelu plazako lur azpiko aparkalekuaren lanak baina iruindar gehienek ez dute begi onez ikusten obra hori, nahiz eta, zinegotziren batek erran zuenez, zuhaitz batzuek ustel kiratsa izan. Arrazoiak aunitz izaten ahal dira: platanondoak botatzea, hiriburua ikurra den plaza hankaz goiti jartzea, aparkalekuen beren beharra ukatzea... Kontuak kontu, hiritar aunitzek ezinezona erakutsi zuten eta erantzuna ohikoa izan zen: poliziaren karga eta atxilotuak. Gobernuaren egunkariak argitzen zuen bezala, Gobernuaren hizkuntzan noski, poliziak aurre egin behar izan zien, ezinbertzean, bazter-nahasleei. Eta urte osoan elkar ulertzea, elkar hizketa eta gisakoak hitzetik hortzera erabiltzen dituzten horiek kontent. Baina non dago elkarrizketa? Erreferenduma eskatu eta ezezko borobila jaso zuten, lau urtetik behin botoa ematea nahikoa baita nonbait, lau urte horietan Gobernuan dagoen alderdiak egiten dituen guziak babesteko. Norbait kontra badago? Gauzez bota arbolak eta polizia bidali, bazter-nahasle horiek zanpatu eta atxilotzeko. Eta kontent gainera, hemen ez baitu, Italian bezala, hildakorik eragin poliziak. Polizia bazter-nahasleen biolentziari aurre egiteko baitaude soilik. Gero, politikoei ongi azalduko dute egunkarietan: bazter-nahasleek biolentzia alde batera utzi behar dute (ahotsa altxatzeari eta kontra egoteari biolentzia deitzen diote orain handikiek), poliziak hildakorik eragin ez dezan. Azken finean, aspaldi aditu genuen bezala, biolentziaren monopolioa Estatuak ukan nahi baitute.

## gure aukerak

### ANTZERKIA

- **Biurrun:** Trokolo eta Oihulari Klown antzerki taldeek, Herriz Herri programaren barruan, *Labidez: printsesa* taularatuko dute gaur 22:00etan herriko frontoian.
- **Viana:** nafarroako ipuin eta kondairak antzerki lana taularatuko du bihar Kontalariak taldeak herriko plazan, iluntzeko 22:00etan. Bertan entzun ahal izanen dira Pirene, Mairuaren Haizpea, Goñiko Teodosio eta Maitemindutako Lamia ipuin zaharrak.
- **Altsasu:** Moscuko Zirko Ttipiak emanaldia du bihar iluntzeko 20:00etan Altsasuko Foruen Plazan.

### MUSIKA

- **Berriozar:** Herria tabernan kontzertua emanen du gaur Kizio taldeak iluntzeko 21:00etatik aitzina.
- **Abarzuza:** Pablo Liquido abeslariak kontzertua eskainiko du gaur gaueko 24:00etan herriko Legarzia tabernan.

### DANTZA

- **Lekunberri:** Ortzadar taldeak Euskal Herriko dantzak biltzen dituen emanaldia eskainiko du bihar 22:00etan frontoian.
- **Urrobi:** Igandean, hilaren 29an, Lakuntzako Patxi Labordarekin dantzaldia izanen da Urrobi kanpinean. Emanaldia iluntzeko 21:30etan hasiko da.
- **Bera:** Gure Txokoa dantza taldeko haurren jaialdia izanen da bihar Eztegarra pilotalekuan.

### ERAKUSKETAK

- **Izaba:** Peio Azketaren azken lanak Kultur Etxean ikusi ahal dira irailaren 2ra arte. Erakusketa aretoa 11:30etik 13:30ra eta 17:00etatik 21:00etara izanen da zabalik.

► **Bera:** Mikel Okiñena eskulturgile ultzamarreren lanak ikusi ahal dira, abuztuaren 5a bitarte, Berako Kultur Etxean.

### IKASTAROAK

► **Iruñea:** Gizarte Ikasketarako Talde Eragileak (IPES) 18.eko antolatu ditu Haurrentzako Euskarazko Tailerrak. 4 eta 11 urte bitarteko haurrek, abuztu osoan, ekintza aunitz egiteko parada izanen dute: bertzeak bertze, jokoak, tailerrak, emanaldiak eta irteerak. Azken ho-

riek Iruñeko Alde Zaharreko zenbait txokotan barna egingen dira.

► **Egues:** Abuztuan zehar, margo ikastaro trinkoa izanen da. Olio teknikaren xehetasunak irakatsiko dira batez ere.

► **Luzaide:** Umeendako joko eta eskulangintza tailerrak izanen dira herrian. 4 eta 12 urte bitarteko ume kozkorrek parte hartzen ahal dute ekintzetan.


### LEHIAKETAK

► **Tutera:** Argia ikastolak 2002.

urtean Tuteran egingen den Nafarroa Oinezeko logotipoa eta leloa aukeratzea xede duen lehiaketarako deialdia egin berri du. Lanak irailaren 3a eta 7a bitartean aurkezten ahal dira ikastolan bertan.

► **Antsoain:** Kontakizun Laburren XIII. Lehiaketa abiatu du Lapurbide Elkarteak. Idazlanak euskaraz zein gaztelaniaz izaten ahal dira eta gaia libre da. Lanak abuztuaren 3a baino lehenago aurkeztu behar dira Antsoaingo udal-estean.

• MIKEL SAIZ



### Txirrinarena

Garai hauean modernoak izan behar omen dugu eta horretarako Interneten helbide elektronikoa ez duena historiaurreko izaki dela pentsatzen dute askok. Posta elektronikoa izatea ezinbertzekoa bihurtu omen da. www, @ eta .com-ak han eta hemen aurkitzen ditugu. Ordenagailuaren pantailaren aitzinean orduak ematen ditugu gure parean bizi direnekin mezuak trukatzeko eta, bidenabar, telefonika enpresei sosak irabazten laguntzen. Lagunak etxean jasotzea, haiek ikustea eta ukitzea, gustuko duenik ere bada, zorionez. Santxotena eskultoreak Arizkongo Bozate auzoan duen Gorrienea museoa paratu duen tramankulua ikusten ahal da argazkian. Txirrina omen da. Etxean lagunak jasotzeko horrelako amu bitxi eta pitxiak ipini beharko ote ditugu etxeko atarian?